


hitzaurrea >>>



BAT-EN KONDAIRA LABURRA

J. L. Alvarez Enparantza

Aldizkariko zuzendaria

Aurkezpenean esan denaren bidetik, lau helburu nagusi ditu hastapenetik Bat aldizkariak:

- 1/ Ikerketa eta formazioa bultzatzea, disziplinartekotasuna ardatz hartuta;
- 2/ Euskal Herrian hizkuntz normalkuntzaren inguruan lanean dihardutenen topagune izatea;
- 3/ Euskal Soziolinguistikari buruz dagoen informazioaren bilgune izatea;
- 4/ Nazioarteko normalkuntza prozesoen jarraipena egitea.

Hori dela-ta, hona hemen, oso laburki, orain arte kaleratutako 30 ihekien mamiaren bilduma.

1- Alde batetik, **Hizkuntz Normalizazioa** bideratu eta gauzatu duten herrien kasoak izan ditugu gogoan.

Belgika-ko **Flandria**-ko nederlanderaren arazoak azaldu ditugu, Glotopoli-karen alorrean bereziki lan honetan (ikus **Bat-2**); Belgikako eskualdeketa (zenbait mapa lagun) erakutsiz, baita eskubide linguistikoen kondaira apur bat eginez ere.

Katalana-ren kasoari eskaini dizkiogu artikulua batzuk **Bat-5**-ean (J.Vernet eta Rafanell-en lumaz).

Hiru **Errepublikak Baltikoen** kasoak (Eesti, Latvia, eta Latvia, alegia) **Bat 7** eta **8**-an aztertu dugu; bertakoen laguntzaz ahalean baliatuz.

Bide beretik **Eire**-ko kasoak aztertu dugu oso bereziki **Bat-15**-an; hone-tarako irlandar intelektual ezagunen beren ahotsa entzun dezakegularik (P.Riagainn,

P.Rice).

Gisa denez, sistematikoki hizkuntz plangintza burutu duen lehenengo Estatuaren kasoa ekarri dugu geure orrialdeetara: **Suomi**-Finlandia-rena, alegia (ikus **Bat-30**). Honetaz ere, geure ikuspuntuaz gain (Sagarnak bereziki ezagutu baititu suomieraren corpus-aren gorabeherak), kanpoko aditu batzuen laguntza ere izan dugu.

2- Beste arreta-gune berezi bat, normala denez, **Euskal Herriaren** beraren egoera hartu dugu ikergai.

Bat-1-etik beretik aztertu dugu **Iparaldeko** hizkuntz egoera. Eta arreta berezia eskaini zaio **Nafarroari** (ikus **Bat-26**, Erize-ren lumaz).

Euskara Batua-ren gorabeherak **Bat-27**-an aztertu dira bereziki.

Unibertsitatearen alorra **Bat-25**-an azaldu da laburki; eta euskarak Justiziaren alorrean sartzeko izan dituen eta dituen oztopoak azaldu dira **Bat-29**-an.

Hizkuntz Plangintza, azkenik, Catalunya eta Euskal Herria alderatuz, **Bat-20** eta **Bat-21**-an aztertu dugu.

3- Arreta berezia eskaini diegu, geure ahalean, gaurko **soziolinguista nagusiak** ezagutarazteko.

Hori dela bide, **bertako** geure ikertzaileetatik hasi ginen (**Iñaki Larrañaga**, **Bat-1**); baita **S. Carrión** "Txepetx" ere (**Bat-2** eta **Bat-18**), batzutan beronen jarraitzaileen lumaz (Irigarai, Larrañaga, Mz.Luna). **Erramun Baxok** baxenabartar lankideak lan bat eskaini digu **Bat 22-23**-an.

Lurraldetasunaren beharraz argiro idatzi duen **Jean Laponce** kanadarrak ere (**Bat -2**) gure orrialde batzuk izan ditu.

Aureli Argemi katalan nekagaitzak, berriz, **Bat-9**an izan du bere lekua; eta gauza bera **Laporte**-k ere **Bat-9**-an.

Gure herriko hizkuntz plangintzan oso sarrera berezia eta eragin ofiziala lortu dituen **Richard Bourhis** kanadarrari eskaini diogu lekunea **Bat-10**-an. Eta flandriar soziolinguista eta euskaldunon adiskide leial ditugun **Kas Deprez** eta **Armel Wynants** irakasleek **Bat-12**-an azaldu digute Belgikako hizkuntz problematika, eta datxezkion ondorio teorikoak.

Einar Haugen jakintsu apartari leku eta arreta bereziak eskaini dizkiogu **Bat-18**-an. Eta leku apur bat ere bai **Roland Breton** irakasle entzutetsuari **Bat-19**-an.

"Language death"aren teoriekin arrakasta eta oihartzun zabala lortu duen

Nancy Dorian-i ere arreta berezia eskaini zaio (ikus **Bat-19**). Eta euskal ira-kasuntzaren zerbitzutan **Ferguson**-en "Diglossia" artikulua famatu eta beharrezkoa argitara dugu euskaraz (**Bat-27**).

Hizkuntz heriotza-ri buruzko Teoria azaldu dugu berriro eta zehazkiago **Bat 19** alean **Lourdes Oñederra** Irakaslearen eskutik.

Eta **erabaki juridikoen mugak** ere ikertu dira (**Bat-24**).

4- Beste alor bat euskararen alorrean **Instituzio ofizialei** dagokie.

Hizkuntz Politikaren gidaritza eraman duen **Mari Karmen Garmendia**-ri eskaini diogu bere hautuak azaltzeko aukera (**Bat-3-4**). Eta **Joxe Mari Agirre** EUS-TAT-eko Zuzendariak inkestean emaitzak azaltzeko aukera izan du (**Bat 13-14**).

Bide beretik, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektore-ordea den **J. Ignazio Pérez**-ek bere ikuspegia eman du (**Bat-25**).

Donostiako Udaletxeko Euskara Zerbitzuak zuzentzen dituen **Inaxio Agirrek**, berriz, **hizkuntz eskakizunen** berri eman du (**Bat-1**); eta **Olatz Altunak**, bere aldetik, egindako **neurketen berri** zehatza eman digu (**Bat 28**).

hitzaurrea

Herri-mogimenduei ere arreta berezia eskaini zaie (**Bat-6**).

5- Bidezko iruditu zaigu Euskal Herrian , eta **Bat** egiten dugunon inguruan hozitu eta testatu den **Teoria Matematikoaren** berri orrialde hauetan zehazki azaldua izatea.

Bat 3-4 ale bikoitzean azaldu zen lehenengo aldiz hizkuntz multzoen **Isotropia eta Anisotropia**-ren Teoria.

Eta **Bat 13-14**an aztertu ziren matematikoki EKBk burututako emaitzak.

Erabileraren normalkuntza aztertu zen teoriaren arabera (**Bat 17**).

Eta **Xabier Isasi**-ren eskutik, eta Informatika-tresnak lagun, datoen uxtiaketa egin dugu (**Bat 22, 23 eta 28**).

Lanen zerrendaketa hutsa da sarrera hau ia-ia. Baina gure aldizkariak urte hauetan landutako alorretan barrena irakurleren bat abiarazten lagun dezake agian.

